

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**ARABAKO BATZAR NAGUSIAK**

2/2026 Foru Araua, urtarrilaren 21ekoa, 2/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 23koa, baliozkotzeko dena, onespina emateko Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara egokitzeari, eta abenduaren 12ko 16/2025 Foru Araua aldatzeari

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2026ko urtarrilaren 21eko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "2/2026 Foru Araua, urtarrilaren 21ekoa, 2/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 23koa, baliozkotzeko dena, onespina emateko Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara egokitzeari, eta abenduaren 12ko 16/2025 Foru Araua aldatzeari," aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

2/2026 FORU ARAUA, URTARRILAREN 21EKOA, 2/2025 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, ABENDUAREN 23KOA, BALIOZKOTZEKO DENA, ONESPINA EMATEKO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA ARAUDIA APIRILAREN 29KO 3/2025 LEGEAK EKONOMIA ITUNEAN EGINDAKO ALDAKETETARA EGOKITZEARI, ETA ABENDUAREN 12KO 16/2025 FORU ARAUA ALDATZEARI

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa– 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, abenduaren 23ko 2/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespina emateko Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara egokitzeari, eta abenduaren 12ko 16/2025 Foru Araua aldatzeari.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da abenduaren 23ko 2/2025 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespina emateko Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia apirilaren 29ko 3/2025 Legeak Ekonomia Itunean egindako aldaketetara egokitzeari, eta abenduaren 12ko 16/2025 Foru Araua aldatzeari.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 21a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA